

Galdera

Zalantza lexiko batekin natorkizue, arkitektura/ingeniaritza mundukoa: zubietan zutabeen gainean doanari (plataforma moduko horri) nola deitu? Wikipedian begiratu dut (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Zubi>) eta zubien atalez hitz egiterakoan 'taula' edo 'oholtza' terminoak erabiltzen ditu. Egokiak iruditzen al zaizkizue? Bada egokiagorik?

Erantzuna

taula terminoa egokia da.

1/ **Euskalterm** Terminologia Banku Publikoan honela jasotzen du aparteko ponderazio-markarik zehaztu gabe:

Arkitektura, Eraikuntza eta Hirigintza - Materialak eta tresnak [Hiztegi terminologikoa] [2002]

eu **taula**

Definizioa

Zubietan, bide-zorua eratzen duen egitura horizontala.

es **tablero**¹

fr **tablier**

en **deck**²

2/ Beste hizkuntza batzuetan:

pt **tabuleiro / gl** **taboleiro**

ca **tauler**

nl **brugdek**²

de **brückendeck**²

3/ Adibide batzuk:

3.1/

eu **'taula'**

Bizkaia zubia edo Zubi Esekia - «b. 165,60 metroko **taula**, jatorriz San Andresko habe gurutzatu batez egina, eta kaitik 43 metroko altueran esekita».


es **tablero**

El puente colgante - «b. Un **tablero** de 165,60m, originariamente construido por una viga en cruz de San Andrés y suspendido a una altura de 43 m».

3.2/ <https://eu.wikipedia.org/wiki/Zubi> - **'taula'** edo **'oholtza'**



3.3/ <https://almadiasdenavarra.com/eu/lanbideen-herria/hargina/zubiaren-zatiak/> - **'galtzada'** (zubi zahar batean)



1 Ingelesez **deck** terminoak 'oholtza'/'plataforma' adiera ere badu. Niderlanderaz eta alemanieraz, berriz, **brugdek** eta **brückendeck** terminoek, hurrenez hurren, 'zubi-taula' esan nahi dute hitzez hitz.

2 **RAE 22. m. Ingen.** Estructura que sostiene la calzada de un puente.